

## COOKIE-EN ERABILERA



eitb.eus-en geure eta beste batzuen cookieak erabiltzen ditugu nabigatzeko esperientzia hobetzeko. [N](#) [politika](#) onartzen duzula ulertuko dugu.

TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA

# Mitzuli, mugikorra itzultzaile bihurtzeko aplikazioa, sortu dute

T.S.J. | EITB.EUS 2015/05/09

**Mikel Artetxe EHUko ikertzaile sortutako doako aplikazio horrek 50 itzulpen-noranzkotan baino gehiagotan itzultzen du.**

**Gomendatu** **Elkarbanatu** Be the first of your friends to recommend this.

Tweet

1



Partekatu

g+1

Share

Iruzkinak

**Mikel Artetxe IXA Taldeko EHUko ikertzaile gipuzkoarrak Mitzuli izeneko aplikazioa sortu du, Elhuyarren laguntzarekin eta babesarekin.** Aplikazio horrek itzultzaile bihurtzen du sakeleko telefonoa, eta 50 itzulpen-noranzko baino gehiago eskaintzen ditu.

Halaber, baliabide urriko hizkuntzek protagonismo berezia dute, Elhuyarren irudiko, "izaera komertzialeko produktuek albo batera utzi ohi dituztelako".

Hori dela eta, aplikazio horrek **Iberiar penintsulako hizkuntza gehienak eskaintzen ditu:** euskara eta okzitania, portugesa, gaztelania, katalana, galiziera, asturiera eta aragoiera.

Bestalde, berrikuntza nabarmena eskaintzen du aplikazio horrek, testu bidezko itzulpena ez ezik, ahots bidezko sarrera/irteera eta irudi bidezko itzulpena ere eskaintzen baititu. Gauzak horrela, erabiltzaileak kartel bati argazkia ateraz gero, **Mitzulik karteletan testua itzuliko du.**

**HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAUEK ERE IZATEA:**

Teknologia 2015 | Telefonía mugikorra albisteak

Iruzkinak





